



KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroak erakarriko ditugu gure jatetxera modu ezberdinetan:

SARE SOZIALAK



Influenzei esker gure instagram kontua ezagutzera emango da, orduan gure kontu hau izango da ere bezeroekin izango dugun komunikazio bide nagusia: egunero igoko dugu gure eguneroko menua, egingo ditugun jarduerak... horrela bezeroek informazio hau eskuragarri izango dute.

Egunero gure janariko argazkiak eta asteburuetan egiten dugun aktibitateak publikatuko ditugu, horrela bezeroei konfiantza gehiago transmitituko diegu jatetxera etortzeko. Instagrametik gurekin kontaktatu ahal dute zalantzak argitzeko, bazkaltzeko erreserba egiteko...

WEB ORRIALDEA eta TELEFONOA



Web orri bat sortuko dugu eta bertan jatetxearen menua, karta, ordutegia, kokapena, ezaugarriak, diseinua, egingo diren jarduera desberdinen egutegia... eskuragarri egongo dira. Web orritik ere jatetxean bazkaltzeko erreserba egin dezakete. Horretarako gaineratuko dugun egutegi bat erabiliz. Bertan ere lokalaren telefono zenbakia eskuragarri egongo da, eta hau ere beste komunikazio bide bat izango da. Lokala irekita dagoen bitartean telefonoz deitu eta gure langileekin hitz egin eta edozein zalantza argitzeko bidea izango dute.

BANAKETA KANALAK

Gure jatetxea Leioako Udondoko Boulevard-rean kokatuta dago. Udondo oinezkoen kale luze bat da. Kale honetan, parke bat dago eta etxebizitzaz inguratuta dago, beraz, oso egokia da terrazan eroso egoteko. Gure janaria terrazan edo jatetxe barruan kontsumitu ahal da eta jasotzeko ere prestatzen dugu, baina ez dugu etxera eramateko zerbitzua. Jatetxera heltzeko hainbat aukera dituzu:

- Metroan. Leioako metro geltokitik 5 minututara dago.
- Kotxez. Kalearen amaieran eta hasieran parking bat dago. Gainera, etxebizitzetan atzetik aparkalekuak daude ere.
- Autobuses. A2161 eta A3472 Bizkaibus autobus lineak Udondoren ondoan dute geralekua.

